



2012/7/27

OSTIRALA
XIV. urtea | 4.889. zenbakiaJarrai gaitzazu: www.gara.net

APERITIFA... J. M. LANDARRETCHÉ

«Baiona, egitura aldetik, hiri ezin aproposagoa da besta egiteko»

Ainize BUTRON | BAIONA

Landarretchek urte askotako harremana dauka Baionako bestekin. Aurten, jaiak 80 urte ospatzen dituztela, Jean-Marcek horiek ospatzen berrogei urte daramatzala aitortu digu, urte bakar batean ere hutsik egin gabe. Jaiak berpiztu eta eskal giroa sustatzen aritu den Ibaialde elkarteko lehendakaria da eta, lagun talde batez inguratuta, bertako karriketan ikusten dugu, urtero-urtero, bere hitzetan «urteko parentesia» eta «arazoak giblean uzteko aproposak» diren jaiak gozatzen.

Asteazkena zelarik egin genuen topo berarekin. Taula gainean zegoen esatari lanean, munduko piper-moleta lehiaketaren emaitzen berri emanez. Horretan zegoela, tarte bat eskaini digu, baina, aurretik, arno fresko baso bat eskuetan izatea ezinbestekotzat jo du. Orain Bat elkar-tearekin, dantzari, eta ondotik, txistulari gisa hasi zituen bestak Landarretchek. Esperientzia luze hori kontuan harturik,

Ibaialdeko lehendakariak Baiona besta egiteko hiri ezin aproposagoa dela dio. «Ez dakit nork pentsatua den hiri honen egituraketa, baina, seguru nago pentsatu zuela hiri horretan noizbait bestak egingen zirela». Karrikaz karrika, berak izendaturiko «kolorezko bestak» ditu maiteen, hots, goizetik gauerdia arte, eta asteazkenetik igandera arte iragaten direnak.

Asteartean noiz?

Jean-Marc, Baionako beste hainbat herri-tarren gisara, ate irekitze ofizialari kasu izpirik egin gabe, jaiak asteazken goizean hasten dituen horietarikoa da. Eta, kalakan geundela, galdera bazterrezina iruditu zitzaigun: «Ea, Jean-Marc, hainbeste gauza egiten dituzuela Baionako jaietarako, noiz hasiko zarete, jaiak astearte gauean ireki behar direla aldarrikatzen?». Galderari berehalakoan erantzun dio Landarretchek: «Bestak astelehen eguerditan hasiko direlarik!». Jean Grenet auzapezak udaletxean buru izaten ja-



Jean-Marc Landarretche piper-moleta lehiaketan.

GARA



Moleta lehiaketa

- Irulegiko sotoko arnoa: doan
- Biper-moleta: doan

Orokorra: doan, noski

rraitzen duen bitartean horrelakorik ez dela sekula gertatuko argi dauka Ibaialdeko buruak, baita asteazkeneko jaiak lasai asko gozatzen jarraitzen ahalko duela oraindik urte batzuetan behintzat ere.

Berrogei urteko ibilbidean zaila da anekdota bat nabarmentzea, eta anekdota baino oroitzapen bat aipatu du Landarretchek. «Istoria eta anekdotak milaka ditut, baina oroitzapen zoragarriena duela hogei urte Dantzaz'pi sortu izana da».



BIHAR. Ekaitzak urrundu eta frontetxo bat etorriko da itsasaldetik. Hasieran giro goxoa, baina gerora petralago. Laino asko goiz partean eta gero arrastaka. Euririk apenas, baina lardaskeria pixka bat bota dezake goizean. Arratsaldean, ateri baina lainotsu. Nafarroaldean ekaitzak leher litezke goiz partean. Motza izango da iparraldetik erasotxo hau, baina eguna panggal antzekoa gertatuko da.

ETZI. Laino maskalak kostaldean ipar haize freskoarekin, baina ateri egongo da. Lainoak gutxitzen eta tenperaturak irabazi. Ez da asko igoko eta bero falta nabaritu dugu. Barnealdean tamaina onean mantenduko da, bero handirik gabe eta zerua erabat garbi, eguraldi ederra eta giro atsegina gauzatuz. Beraz, kostaldean eskas antzean eta hegoaldean bikain. Onaldiaren arian izango gara.

Ekaitzak protagonista lurralde osoan

EGURALDIA GAUR. Joxe LANDA. Ekaitz giroa nabarmenduko da egun osoan. Egunean zehar nonahi izan litezke zaparrada trumotsuak, arratsaldean bereziki. Hala ere, azkenerako kostaldean ipar haizeak ahuldu egingo du apur bat ekaitz arrisku hori. Tenperatura maximoak pixka bat galduko du, baina ondo mantenduko du bero puntua. Iluntzean ipar lainoak sartuko dira kostaldera freskura ekarri.